URTARRILLA
25
Larunbata

Bilbao, 1936

Euzkadi

ARPIDE-SANEUŔIJA
Bilbao'kua ... ... 9,00 ıŕko. Iru ile...
Bilbao'atazkua ... 11,25 » »
Idazki-itunmena ... 62,00 » urtez
Atzeŕijetakuak ... 112,50 » »

Beldayen itunduba

XXIV urtia || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.° || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 7.203 zenbakija

¡Euskaldunak entzun!

Maitasuna, goŕotoa.

Gizonaren biotzean euren bizilekua daben indar bi dozuez, ene irakurle euskaldunak, or gorago aitatu dautzueguzan oŕek; maitasuna eta goŕotoa. Baña alkaŕen auzokide izanaŕen, abi ber-bereko txorikumak izanaŕen, ez dira indar bi oŕek beste arazo asko ta askotan alkaŕen kide, bata bestearen arerio baño.

Ukutzen dauan guzti-guztia garbitu ta araztu daroa maitasunak, goŕotoak baŕiz, dana likiztu, loitu, zikindu; bizitza ber-bera dogu maitasuna, goŕotoa eriotzaren lagun maite-maitea; maitasunak argia dakar gogora, goŕotoak iluna; maitasuna egia da, goŕotoa guzuŕa; goitiko indar altsua dogu maitasuna, Jaungoikoa'ren kide egiten gaituana, goŕotoa ostera, gogo gaiztoaren ondorena, ta gizona betiko zori txaŕera eroango dauan indaŕa; maitasunarekin lortu leike gizonak mundu onetan, benetako bake ta zoriona, goŕotoarekin ez dau gudua ta alkar ikusi eziña baño besterik lortukó.

Alkaŕen arerio gogoŕagorik ezin aurkitu ba, indar bi onek bata bestearentzako diran baño; batak nai dauana, besteak iguin dau. Itzalak argiagandik iges egiten dauan bezelaxe, goŕotoa igeska dabil maitasunaren ingurutik; ezin iñondik-iñora alkar aitu, ezelan bere ezin kidetu.

Izan bere, ¿zelan artu leikee ondo alkar, ilundiko indaŕa dan goŕoto iguingaŕiak eta Jaungoikoa'ren beraren altsotik urteniko maitasun onuragiñak; ezin, au ezin leiteke ezelan bere gertatu, ta ori dala ta, beti geldituko yakuz aitaturiko indar bi oŕek alkaŕegandik aldenduta.

Irakurleren batek edo bestek esan go dau aurki bere baŕurako, zetara datoŕen onenbeste azalkunde, eta beingo-beingoan erakutsiko dautsogu guk, al dogun argitasunik aundienagaz, goitiko, erdiko eta beerengo euskaldunak yakin bear dabena da ta, zetara datoŕen gure azalkunde guztiori, ona:

Egun gitxi baŕu izango ditugun auteskunde edo elezińoetan, ¡entzun ondo gero euskaldunak!, egun gitxi baŕu izango ditugun auteskunde edo elezińoetan bere, or ikusiko ditugu indar bi oŕek, beti legez, alkaŕen auŕez-auŕe, txakur amoŕatuen gizan, alkaŕeri aginkadaka.

Eskumataŕak alde batetik eta ezkertaŕ goŕiak bestetik ari yakuz egunokaz, alkaŕeri iñon diran irain eta goŕotozko itzak aurpegira yartika; ez dogu euren artean goŕotoa baño besterik ikusten, ez dogu euren artean alkar ikusi eziña baño besterik baŕuntetan; ez dago oŕen berbetan ezetariko maitasun usaińik, amoŕuzko berba gaŕatzak baño, eta onan ezin bizi leiteke iñor gizonen artean.

"Agitaritzaren toki goirengoak artu dagidazanean—esaten dabe aitaturiko bidea. "Alkar maite egizue" esan euskun Goiko Jaun eŕukitsuak. Eta, tuko ditudan txakur lotsagalduak." Bai alde bateko eta bai besteko lagunak ez dauke abotan beste itz edo berbarik auŕekoari sartadea ta zigorkadea emotea baño.

Ez da au, ene euskaldun anai maiteak, Jaungoikoa'k gizonari erakutsiriko bidea. "Alkar maite egizue" esan euskun Goiko Jaun eŕukitsuak. Eta, ¡zenbat gogo, zenbat eta zenbat arima ekaŕi leitekezan gure mundu ziztrin onetan benetako bidera maitasunarekin!

¡Zenbat eta zenbat biotz irabazi leitekezan gauza guzti-guztietan maisuna eta eŕukia erabilirik! Sartadeak, zigorkadeak, azpian dagona sutu ta naspildu egiten dabe, eta gero, goyan dagonarentzat goŕotoa sortu; ortik etorten yakuz matxiñada edo zalapartarik gogoŕenak.

Or gorago esan dogun guztiori gogoan ondo arturik, ona emen abertzaleak datozan auteskundeetarako yaurti dogun deadaŕa: "KRISTOREN IKASBIDEA, ABEŔIAREN BURU YAUBETASUNA ETA GIZARTEKO ARTU-EMONETAN, BENETAKO ZUZENTASUNA".

Kristoren ikasbideak, len aitatu dogun maitasuna erabiltea eskatzen dausku; gizonak alkar maite izan bear dogu, maitasunak gaizkatuko gaitu ta ilunpetik urtetan lagundu, maitasunarekin irabaziko ditugu mundutar guzti-guztien biotzak, eta ezgaitu bide oŕetatik ezek aldenduko. Zalbaldu daigun gizonen artean Kristoren ikasbidea, batez bere gure gazteriaren artean. Gazteak alkaŕen auŕez-auŕe, alkar ilten yaŕi beaŕekoan, sartu daiguzan bein-betiko maitasunaren bideetan.

Abeŕiaren buru yaubetasuna da gure deadar sutsuaren bigaŕen atala. Gure gurasoak eurek egiten zituen eurentzako legeak, eskubide oso osoa euren antxiñako euskaldun zintzoak oŕetan. ¿Geyegikeria ete da ba, guk, arek euken eskubide ber-bera geuretzako eskatzea? Ez doa ori iñoren aurka, guri yagokuna eskatzea baño ez da.

Gizarteko artu-emonetan benetako zuzentasuna. Auxe da gure deadar ospatsuaren azkenengo atala. Gizarteko artu-emon onetan bizi-bizien dabilena, ugazaba ta langileen artekoa dogu gaur. Zuzentasun osoarekin erabagi nai dogu gizarteko artu-emon au, bakoitxari berari yagokona emonaz. Begoz ugazabak euren tokian, langileak ez begie urten eurenetik. Langileari berak egoki bizi izateko bear dauan beste emoten yakon egunean, asko ta asko lagunduko dogu orain osoro lazturik aurkitzen dan arazo astun-astun au.

Ortik sortu dira munduan izan diran naspilik naskagaŕienak, ugazabak dirua gorde ta langileei bear dabena emon ez egite oŕetatik. Ez dira ba langileak matxiñada oŕen eŕudun bakaŕa k, ugazabak bere, eŕurik asko dauke oŕetan.

Gizarteko arazoak egoki erabagi daitezan nai baldin badogu, bakotxari berea emon bearko dautsogu lenbizi, eta au, maitasunarekin bakar-bakaŕik lortu geinke.

Mundu onetan dan-danok ditugu gure bearkizunak, bai langileak eta bai ugazabak, eta bearkizun oŕetatik sortu oi diran eskubideak bere, dan-danori dagokiguz. Ez dagiogun iñori, bere bearkizuna bear dan legez betetea eskatu, bearkizun onetatik sortu oi dan eskubidea beretzako ondo yagon edo gorde barik. Auxe da gure ustez gizarteko artu-emonetan benetako zuzentasuna, ta zuzentasun au egoki erabilten baldin badogu, ber-bertotik erabagi al izango dogu aitaturiko auzi izugaŕi ori.

¡Euskaldunak, entzun ondo! Or dituzue iru alderdi alkaŕen auŕez-auŕe gure eŕian; eskumataŕak, ezkertar goŕiak eta abertzaleak. Azkenengo onek izango dira aurki euskaldun geyenen gogoko, ba onek goitik urten ezkero, benetako bakea ta egokitasuŕa etoŕiko da gure abeŕira.

Uŕengo baten ekingo dautsogu gaur baño sutsuago arazo oneri, **goiko erdiko eta beerengo euskaldunak guztian ondo baño obeto ikasi dagien.**

AŔUGAIN.

Datoŕen ilaren 16'gaŕenan auteskundiak doguz eta erakutsi biaŕko dogu abeŕtzaliak abeŕtzale garala. Oŕetarako gogoŕ-egin biaŕ dogu geure aldun-geyen aldez, eta arerijuak egin eztayen eurak gura dabena.
Lotsarik ba-dogu euzkotaŕok, abeŕtzaliei emon biaŕko dautsegu botua. Au egingo eztaben euzkotaŕak euren eŕijaren kaltez alegindúko dira. Ta geugandik jaurti biaŕko doguz, Euzkadi'k biaŕ eztaulako seme galdurik.

Auteskunde - aurrez

TXAKUŔAK ZAUNKA

Txakuŕak zaunka egin dagijenian, gixon diran gixonak, jaramonik egin baga, auŕera duaz. "La Gacetatxu,,'ko txakuŕak zaunka diñardube, baña keskarik eztauskube emoten.

Atzoko zenbakijan, be, euzko-aldunak zer egin daroien adirazo gura dausku. "Una provincia eclesiástica" eskatzera juanak ei-dira. Aŕanopola! Beste lelo bategaz ezkenbiltzan ala? Urkixo'ren biuŕkerijak zirala-ta juan ei-ziranak, orain beste bide batez duaz.

Burutik egin biaŕ yako. Urkixo jaunak gustija jakiŕen eban, baña euzko-aldunak darabilezan asmuak eztaikez igaŕi. ¡Oŕek sutan jaŕi darua! Goikua'ri eskeŕak, izki goŕiskak kendu dauz. Ainbeste idazkura goŕik kikiltzen gauz.

"¡GORA BIJOTZAK!"

Orixe diñosku "Gaceta"-txuk. "País Vasco-Navarro,,'n gaŕa daŕijoela ei-dabiltz eskumaŕak. Bere asmuak ontzat aŕtu ei-dabez; bere lanak goraldubak ei-dira; bere aldun-gayak punterenguak. ¿Baña izpaŕingi oŕek eztaki apaltasuna zer dan? ¡A zelako artobero usaña!

Labartua egiŕen danian, be, ezta ixaten oŕen besteko usańik! Araba'n, ostera, "copo,,'ra ei-duaz. ¡Bai, zeuk diñozulako! Oriol eta Florez Estrada. Alagalako gixontxubak. Oŕeikaz ezkara uŕun juango.

¡BEIN ETA BETIKO!

Burutik dagonari edozer parkatzen yako. Eta "Gaceta"-txuri, be, azketsi dagijogun. "Por una sola vez y para que conste" burutzat jaŕi dautson uaŕari eldu dagijogun. Adizkide askotxuk, idazkiz ta itzez esan diñoskube, zer dala-ta eztautsogun erantzuten EUZKADI'ri. Bein eta betiko erantzuten dautsegu: Etxe onetan eztogulako aspaldijon irakuŕten izpaŕingi ori. "No interesa".

A zelako uzkeŕa jaurti daun ori idatzi ostian! Nasai-nasai geratuko zan gixontxu biuŕen bat. EUZKADI'n egin yakozan apostubai eta erantzun ezin dautsenian, lelokeri bat erantzun daroia. ¡Ai aŕo-aŕo, zu beti lelua, zurekin dabilena zeu besteko astua!

EUZKEL-JAKINTSUBAK

Bilbao onetan ikusten doguzan gauzak! "Gaceta"-txun idazle jatoŕen bat ageŕtu yaku, baña "El Nervion,,'en ageŕtu yakun "traductoria". ¡Zer da bera! Bere jakintza erakusten emoteko "El Dia" eskuratu dau. Ila onen 21'gaŕenian argiŕaldu zan idazlana bati eskubak saŕtu dautsoz. Eta zast, eŕderaratu egin dau. ¡Baña zelan gero!

"El Día,,'ko idazliak iñuan: "Laister ei-dira españaŕak asmautako "lateŕijan" auteskundiak" eta "El Nervion,,'ek olantxe erderatu dau: "Pronto habrá elecciones en LA PATRIA INVENTADA POR LOS ESPAÑOLES".

Beratxubago: "Ez ziñistu Egoaldekoei guzurti utsak baño ez dira-ta" Bilbao'ko izpaŕingitxubak damusku: NO CREAIS A LOS ESPAÑOLES, QUE SON UNOS EMBUSTEROS EN GRADO SUPERLATIVO".

¡Olako doloŕakaz nora guakez! Euzkerarik eztakije, eŕderarik bere ez. ¡A zelako zaŕtadak emongo neuskijezan!

ALBONTSA'RENA

Albontsa amairugaŕen eguna zala-ta, Bilbao'ko eŕegetaŕak egin ebezan lelokerijak! Carlton'en batzandu ziran eta edanari emon eutsen. ¡A zan edatia! ¡Emakumiak eurek, be, txapla oratuten eutsen edontzijari! Eŕegien egunak-eta jateko ta edateko baño eztabez gura.

Kareaga emakumiak itz-egin eutsen eta sutan jaŕi ei-ebazan gustijen bijotzak. ¡Jan-ostian! Jan-auŕian berotu biaŕ dira bijotzak eta goguak, bestela meriturik eztauko.

JUPITER BAŔIJA

¿Jupiter nor zan? Zeus eritxoen eta antziñakoen Jainko-ixunik gurenena zan. Jupiter'en eskubetan egozan trumoyak eta tximistak. Berari begiko etxakona tximista bategaz kentzen eban. Txapla onuntz, txipli aruntz, eta bakian geratzen zan. Oraingo Jupiter baŕija, Gil Robles dogu. "Si se intenta por alguien ponernos obstáculos, el camino se lo marcará él". Geroxe: "La justicia se aplicará a rajatabla, pero en las cabezas". Edo olakoxe itzak jaurti dauz bere etsayen aurka. "Ríos de sangre" be ixango ei-dira. ¡Aguŕ, Jupiter altsu ori!

Gayak

EŔIKETEA

Eŕiketea edo politikea, eŕiketa-opilatik jaten dabenak bakaŕik uleŕtuteko da. Egun baten, alkaŕ il biaŕian bata bestiari txakuŕenak esaten ikusten diran gixonak, uŕengo egunian, alkaŕ besaŕkatuten ikusten dira.

Atzo, txeŕen jantzita elexak eŕetan ebiiala-ta, ezestu ta gaiztesten eben gixona, gauŕ eskotaŕen done-jantzijaz estalduta dala, eskotaŕ katoliku-titulu-dun (?) agirikuenakin buztaŕtuta ikus ten dogu.

Maura'taŕ Mikel, ondiño ontxuraŕte txeŕen-kumetzat txadonai suba emoten eta abaŕ margoztuten ixan daben gixon ankeŕa ta abaŕ, eskumatzakuakin buztaŕtu danetik ona, Goikoetxea, Gil Robles eta abaŕ'ekin besaŕkatuta erakusten dauskube.

Aldi baten, Bilbao'ko "Gacetatxu" bakanarentzat be, Maura bi egozan: Maura ona, ta Maura txaŕa. Maura ona, Onori bakaldaŕ puŕukatubari esaten autsan. Maura txaŕa, ostera, Mikel eŕkaldaŕ agirikuari.

Datoŕen otsala'n 16'gaŕeneko auteskundiak bide dirala egin ixan daben opiia laban saŕtu dabenetik ona, baña Maura txaŕa, Maura on biuŕtu da. Bakaldaŕakin buztaŕtuta auteskunde-opiia egiteko gertau ixan dan egunetik, orduraŕteko oben gustijak parkatu-egin dautsoez, baŕa areik elexa-eŕetiak eta abaŕ be.

Ikusten danentz, obenak parkatu, ta obenak ezaŕteko eskubidia daukenak, eskotaŕak dira. Orañaŕtian, guretzat kistaŕ-ikasbidia ziatz-ziatz ikasi ixan dogunontzat, obenak parkatzeko eskubidia ixan daben gixaki bakaŕak, doipurubagandik asita azkenengo baseŕiko abade apaleneraŕteko eleiz-gixonak ixan dira. Obenak ezaŕteko eskubidetzat, iñoŕtxu be eztogu ezagutzen. Obenak, oben egiten dabenak berak ezaŕten dauz. Baña ez iñori, bakotxak bere burubari baño.

Guk, kistaŕ-ikasbidia ikasi ta...
-ikasbidiak diñoskunari zuzen-zu...
ŕaitzen dautsagun jeltzaliok, k...
eginbiaŕak oŕetaraxe ikusten do...

Emen, ludijon, Kisto'ren orde...
ran jauparijak baño geyago ...
Bilbao'ko "Gacetatxu" ta onek ...
tuten dabezan bide okeŕetatik ...
duazan nastekuak, baña, "ka...
-gauza gaŕantzitsubak beste era...
r. ikusten dabez: eurak egin ix...
ben opilari suba egiteko eguŕak...
ko gertu dagozanak, masoi ta ...
naren otsein agirikuenak ba-di...
done-ixena irabaziko dabe: L...
Melquiades Alvarez, Maura'taŕ ...
eta straperlo-nombela ta nasteb...
gustijak be, done-doniak dira, ...
-santuak dira... Jeltzaliak, oster...
taŕ-ikasbidia buruz ikasita gero, ...
go leŕotik asita azkenengo leŕ...
ko gustija osuan betetu ixan ...
Jaun-Goikua eta Lagi-Zaŕa altez...
Goiko Jauna guŕtu ta aintza...
daben jeltzaliak, masoitzat este...
bez, gixaŕte-ondatzaletzat, eŕebo...
rijotzat, eta abaŕ ta abaŕ.

Eta auteskundietarako egin ...
opiiari suba egiteko biaŕ daben ...
ŕija batzeko eŕirik-eŕi bidaldu da...
eguŕ-batzaliak be, "Gacetatxu" ...
en adizkidiak egunoro otoiztute...
ben eŕiketa-otoya oguzten dabe...
Igazi dan igandian, Ondaŕoa'r...
ziran nasteboŕasteko izlarijak be...
cetatxu"-gandik ikasi ebena baña...
ben esan.

Bene-benetako kistaŕai, ben...
"katolikuei" aŕika egiteko, n...
gusti oŕein goŕotogaŕija dan euz...
gañoko gustija erabili eben.

Eta Bilbao'ko bakaldaŕen izp...
batzuk iñuenez, "al paso de los p...
gandistas, hasta los aldeanos les ...
dian entusiasmados".

Ondaŕoataŕ aŕantzaliak, baŕiz, ...
kina'ko alkatetxuba auŕkeztu ...
nian, "¡Viva nuestro diputado!"...
-egiten ei-eutsoen.

Eta "Jose Luistxuk", "viva"...
aŕopuztuta, onantxe as ei-zan: ...
los discursos pronunciados no me...
a mí más que resumir. Revolu...
contrarrevolución. España vuelv...
ojos a la causa de la Tradición, ...
el programa mantenido siempre ...
vés de toda época por la Co...
Tradicionalista". (Aplausos)."

Gaytan de Ayala aundiki-sem...
gixon aundi ixan gurako oŕek ...
ebazan itz txalogaŕi (?) oŕeikin ...
daŕoa gustija berari begira ix...
-eban.

Beraz, irakuŕle, Bilbao'ko "E...
blo Vasco" ta onen buztaŕi-lagun...
ñuena egija ba-da, Markina'ko ...
tetxuba, Madrid'ko aldun egingo ...
Eta Jose Luistxu Madrid'ko ...
saŕtzen ba-dabe, saŕtu, Ondaŕ...
aŕantzaliak nok lagunduba ixango ...
be (?). Nok lagunduba eztakik, ...
nok aŕantza-egiña etxake paltako ...
ñepein.

Entzun dozu, irakuŕle. Donia, a...
ixatia gura ba-dozu, Salazar Al...
Lerroux eta Bilbao'ko "Gaceta...
atso zimelarekin buztaŕtu zateź.

Eta ordez, txeŕenaren antzeko b...
ta "eŕeboluziñarijo"-ixena irabazi...
ra ba-dozu, Euzko-Alderdi Jeltza...
alderdikidetu z a t e z. ¿Eztausta...
uleŕtuten...? ¿"No entender, no e...
der?" "Oeko lastamaŕagia emon ...
tzunian, ondo uleŕtu zeustan, ba"...

DURANGO'N

Datoŕen igandian, aŕatsaldeko ir...
erdijetan, Durango'ko Astarloa-E...
'ko antzokijan antzeŕki-jai polita ...
go da.

Lenengo lekuban, "Peru - G...
Etxabe'taŕ Alberda'k (G. B.) idatz...
'ko atal biko antzeŕki polita antze...
dabe.

Gero, baŕiz, "Txomin Aŕayo" E...
do'taŕ Joseba'k idatzitako an...
baŕagaŕija.

Antzeŕki oneik, ezagunak dira, ...
eurok antzeztuko dabezan dur...
antzezlari trebiak be.

Saneuŕijak be, merke-merkiak ...
Baiaukija, 1,60; bestoa, 1,60; au...
yaulkija, 1,60; goyaulkija, 1,35; g...
toa, 1,10; ordañerdi, jaŕleku ...
0,60.

Saneuŕi onei, Euzko-Ikastola'e...
ko, 0,10 geŕuko yake. Saneuŕi ...
kiak eta antzezkixun politak di...
datoŕen igandian Durango'ko As...
-Etxia notiñez bete-bete eginda ...
ko da. Zorijonak.

¡EUZKERA GAXUA!

Atzo be, "Gacetatxu" ama-ord...
altzo tximuŕ eta ixoztuban ikus...
duguzan. Ama-orde ankeŕ bijotz...
ek, zeure gogoz-auŕkako itzak ...
ten imiñi zenduzan.

Eta zuk, ¡gaxo-gaxo oŕek!, ...
-auŕkako itzak oguzteko jayua ...
ana, oguzi ixan zenduzan gatz ...
rakatz bako itz motel iletan era...
zendun. "Oŕa or, gure diputadu...
—motel-motel esan zeuskun. "Dira...
ikoiak, eurak legez iñok ezlei...
gure eŕiaren eskubide ta izatea"...
tu zeuskun gero. "Euzkera ga...
Enao txaideko ama-orde atzo an...
ren altzuan jaŕi zaŕubezanezker...
ketan be aiztu egin yatzula esan ...
"Dira - eŕikoiak...", ori ezta, ba, ...
euzkera jatoŕaren izkera-gogua, ...
koyak dira..." ta abaŕ baño... ¡Eu...
gaxua...! ¿Noren altzuan imiñi ...
bezala, baña....?

Uribiaŕte'taŕ D...

¡¡ABEŔTZALIAK!!
Autarki-tokijetako atiak zabaltzen dabezan orduban bertan emon zeben botuak eta gero jabon ondo autarki-tokijak iñora alderik egin barik.

Abeŕtzalia dan abeŕtzalia goxeko saspiretako kalian egon biaŕ da bere ardurea betetzen. Nai amar urtedun dala nai irurogei urtedun dala. Abeŕtzaliaren egin-biaŕa edo zeregiña kalian dago. ¡Etxian egon da eztira irabazten auteskundiak!

Gatxerdi

Bizkai - Aldundiak Auzo-Ikastolak sortu baño askoz lenagotik, Abeŕtzale-Alderdiak bere endiarı eutsan maitasunak bultzauta, azterkuntza berezia egin eban Bizkai baseŕietan, itaun onen bitartez gitxi gora-bera.

Yuan zara iñoiz ikastolara eta zenbat urtean? Idatzi ta irakurten baidakizu? Zure maxua erdelduna ete zan? Zenbat urtegaz asi ziñan ikastolara yuaten eta abar...

Erantzunik geyenak ostera era onetakoak izan ziran. Uŕun geunkan uriko ikastolea eta amar urte gitxienez bear ebezala mutiko, ta neskatoak bide luze arek ibilten, batesbe neguan, eta eguerdian etxetik kanpoan bazkaltzeko. Maxoa erdelduna ebela eta etzirala aregaz aituten umeak, eta naita urte osuan edo bitan yuan ikastolara, alkar ulertu barik banantzen zirala.

Geyenean urte bigaŕenerako edo amabi urtegaz etxe biaŕetarako amak bear ebazala, eta oŕegaitik asko eta asko lotzen zirala bizitza gustirako yakinge.

Erantzun onek ondo ikasita, artu eben abertzaleak eretxi eŕotikoa, baseŕietako umeak uŕunetako mendietatik uriko ikastolatara etoŕi beaŕean, ikastolak eurekana mendietara eroatea, iñortxu be yakinge lotu ezeikean gure mendietan.

Oŕetarako euzkeldunak izan bear eben irakasleak, lenengo egunetik aitu eikezan maitasunez alkaŕegaz gure izkuntzan umetxu ta irakasleak, arotz irakasle ankeŕan antzera mindu barik ume eŕukaŕiak euren gurasoen izkuntzan ekiña gaitik, geure luŕean.

Olan, gazteagotatik asten ziran ikasten eta etxean bear ziranerako, ondo ikasiko ebezan euraen izkuntzan, etxerako bear ebezan yakin gayak. Ganera, auŕera yaŕaitu nai ebenak geldi-geldika umeari ok eragin barik. Ikasiko eben ondo, izkuntza bietan, euzkera ta erdera.

Dan-dana egiten zan bizkaitaŕan diruagaz eta baseŕitaŕak eurak ikastolak eregita, euraen umientzat.

Txalogaŕia mundu edo ludiko basteŕetan izango zan lan onurakor ta edeŕau; baña emen yakituriz eztaldutako basatiak diran monarkiko ta karlatar guzuŕezko pueru-zaleak, gure euzkera ta izateari dautsen goŕotuak bultzauta, iruntsitara biurtu euskuezan geure ikastolak euzkeria eraldu eta erderia zabaltzeko.

Irakaslemerik geyenak abertzale zindoak dira eta yakituriz irabasiak euraen tokiak; baña ¡au aŕigaŕia! gogo maitasunak zapalduta bide deunga oŕetan yaŕaitu beaŕean aurkitzen dira ogibidean, erdeldun eta erdelzaleak diralako euraen agintariak eta umetxoak erdera ezpadakite, zigortauak izaten diralako eurak irakasleak. Doloŕkeri oneik dagiezan eŕi eta gizonak ezin legike lortu iñongo eŕiren maitasunik eta deungerik argienak be nunbait loŕatzak itxi daroazen antzera euren galgaŕitzat izan daroez dagiezan deungekeriak.

Gaur gure mendietan Auzo-Ikastolaren bitartez paŕ-paŕa zabalduda erderia, baña ezeben ondo ikasi doŕor onek erein eben azitik erneko zana euraen maitasunak zapalduko ebezan indaŕa. Orain gure mendietako gaztediak erdera ikasi dau zeindan euraen abeŕia eta bera gaizkatzeko bidea eta aren gurasoak saltzen ba'ebezan euren autarkiak gaurko semeak gebenduten dautse ori egiten. Eskeŕak seme eta alabari ezdira salduko gure menditaŕak lenago egiten ziran antzera, eta gurea izango da gurenda oso osua.

Euzkeria erail nai ebenak, erailduak izango dira euraen eretxietan, aren aurka yagi eben izkiiuagaz.

Aneika dira ludian norberan eŕegaŕitzako eguŕak gertuten dabezanak eta gure arerixoak onetaikoak dira geyenak.

Dakusgunez goŕotoak erotuta edo geure aldeko lanean ipinten ditu, maite gaituenak, eta ezkeŕak areri, berera doya zabaltzen argi gaizkaiea.

Gatxerdi ba euzkera aurka egin dauskuen kaltea, danoen maitasunagaz osatuko doguta.

Perulaŕa.

Irakurri EUZKADI

Euzkotar Umien Aldez

I

"Okeŕa zara ba.
Zergaitik lorik egin nai ez?
Samoŕua etortzen ba'da,
Ez dakit zer izango dan zuzaz."
(Mexico'taŕ seaska abestia.)

Emango ez diran sariak umeai eskeintzea aziera onarentzat zein kaltegaŕia zan esan genduan. Kaltegaŕiagoa da oraindik ezaŕiko ez diran zigoŕak agintzea.

Esanik egiten ez dakian ume bat goizean zazpi ta erdietan jaiki eta jantzi naiezik dago. Ara bere amak zer esaten dion:

—Margarite, baldin arin janzten ez ba'zera, kamixa utzik eramango zaitut ikastolara.

Beste neskatxo bat, berak nai duan platerian zukua eman ez diotelako, burua mayen gañera bota eta oraindik jaten asi gabe dago besteak ia bazkaria amaitu dutenean. Entzun bere amaren erteera:

—Josune, berialaxe auŕian daukazun sopa ori jaten ez ba'dezu, aŕatsaldean berori jan bearko dezu meriendetan, eta aŕatsaldean jaten ez ba'dezu apaitan, eta baldin apaitan jaten ez ba'dezu, biar goizean gozaitan, dagoan bezelaxe, otz-otzik.

Jon, mutiltxo okeŕ xamaŕa da, bere burua iñon diran arixkuetan erabiii beaŕ izaten duana. Beribiiak Enparantzatik juaten azitzen diranean, atzetik eldu ta bide zabaleraño juan beaŕ izaten du. San Juanetan su pestak egiten diranean, erdi-erditik, surik aundiena dagoan lekutik alde batetik bestera saltoka ibili oi da. Etxe beŕi bat egiten ari diranean, langileak lanari utzi orduko, orma gañetatik, abietatik leyoetatik eta berdin teiatuetatik. Pelota partidua danean, beti auŕe-auŕean, aŕayen baŕuko aldetik, pelota bat okeŕ ba'datoŕ buruen erdian artzeko lekuan. Itxasoak bere amoŕoakin basteŕ guztiak iruntzi beaŕ dituanean moia puntan. Bide zabalean galipota botatzen ari diranean, ontzi beroaren ondo-ondoan. Itz batean, beti bere burua, itotzeko, edo eŕetzeko edo beintzat galtzeko zorian. Beti ezuŕ bat puskatzeko ustetan onelakoak esaten dizkio.

Aitak ez ditu jakin oi onelako gauzak, baldin ba'lezki, noizean bein jipoi edeŕak emango lizkiokez ta.

Augaitik, okeŕkeri abek danak amak estali egin oi dizkio, eta umea zuzentzeko usteltan onelakoak esaten dizkio egunero, edo egunean bi edo iru bideŕ.

(Egunean bi edo iru bideŕ jakin erazoten diote ba umea zubi gañera igota ibaira erori ta itotzeko zorian ibiii dala, edo kanpantoŕeko leyo aunditik burua ateratzen ibiii dala zorabiotzen dan edo ez proatzeko, edo ta periara ekaŕi duten iri pare aundi bati buztanetik teinkaka ibiii dala edo onelakoren bat.)

—Ara, Jon, egunean, egunean onelako albisteak artzen aspertu naiz, bai? eta nola ez dezun iñondik iñora esanik egin nai, uŕengo-uŕengo datoŕen ijito talde bati salduko zaitut, bai? eta euren astoan artuta an eramango zaituzte motzaleak.

a zer nolako pakea izango detan orduantxe! Zu beŕiz bapo, eŕiz-eŕi, ijituakin, astoai ilea ebakitzen.

Jon Koldobika, etxe aberatz bateko seme bakaŕa da. Amabi urteak bete dituan aŕen, oraindik ez daki oñetakorik jazten. Neskameak jantzi bear izaten dizkio egunoro. Arpegia garbitu eta oŕaztu beŕiz, beti amak, neskameak miñik eman ez dezayon. Oso gauza gutxik ematen bai dio min! Uraxen da umea, gaur arte berak nai duan gauzarik lortu gabe gelditu gabea.

Eta Ikastetxetik nota txaŕak ekartzen ditualako, amak, aitari begiakaz kiñu eginda (umea, kiñua ikusten aspertuta dago beŕiz, asteoroko jolasa da au ta) esaten dio:

—Begira, zu, Andoni, Jon Koldobika'k gauŕ ere notarik txaŕenak ekaŕi ditu, bai? eta ume au Ikastetxetik atera, ta lantegi batean sartu bearko degu, arpegia ta eskuak beltz-beltz eginda, eŕopa zaŕ-zaŕakin lanean ibiii dedin.

Eta aitak, zerbait esaten dualakoan, eta ume alpeŕ baña zuŕ ark siñistuko diolakotan, dio:

—Ez, aunditxoa egindakoan kamiñeru sartuko degu. Gu biok jo Donostia ta jo Bilbao beribiiean gabiltzanean, au ikusiko degu gizajo ori bide ertzean, bere txapel goŕia buruan duala, izerdi ta patzetan, berorik aundienean lanean. Gu, beribiieko aize preskotan ederki juango gera, eta "Aguŕ, Jon Koldobika!" dei egingo diogu.

Esan beaŕik ete det, umea paŕe puŕustadak erten ez dezayon alegiñak egiten ari dala, bere aitak, beteko ez duan zigoŕ au agintzen dion bitartean?

(Daŕaike.) **Aŕitokieta.**

Bakaldaŕak edo monarkikuak ixan zuazan 1839'gaŕen urteko lagijagaz eta ondorikuekaz negaŕa ta zoritxaŕa gure eŕira ekaŕi euskubezanak ¿eta oŕei eure botua emongo-ete dautsek? ¡Ez olakoik; olako burubakokeririk ezeik egin euzkotaŕ oŕek!
¡Eure botua emon egixubek euzko-alderdiko diputadu geyei!

¡¡EUZKOTARAK!!
Or-ziaŕ, batez be uritxubetau dabiltzanetaiko kasike zikiñen bat botua erosteko asmoz uŕeratzen ba-yatzube aulan erantzun: "Nik gura ba-dozu salduko dautzudaz olotokijan dodazan oluak, koŕtan dodazan txaŕija ta astua: ¡Baña neu saldu? ¡Neure gogua saldu? ¡Nere botua saldu? Ori ez: egundo bez olakorik: Lenago gosez ilgo naz.
Orixe da, astuak perijan lez gixonak erosi-guran dabiltzan iguingaŕijei euzkotaŕak erantzun-biaŕ dautsona.